

# Angel Olaran-ekin berriketan

## Angel Olaran-ekin berriketan

1. Non jaio zinen? Zure haurtzaroa nolako izan zen?
  - Hernanin, 1938an. Oso polita, sei anai-arreba nituen eta oso pozik bizi ginen gurasoekin.
2. Elizako bidea noiz ikasi zenuen?
  - 15 urte nituela ideia bururatu zitzaidan; gero, irakurtzen, pelikulak ikusten... animatu nintzen.
3. Zergatik sartu zinen Aita Zurien taldean?
  - Sinesmena nuelako.
4. Afrikara joan zinenean, zein lurraldetara joan zinen? Ondoren, nora?
  - 1970. urtean Tanzaniara joan nintzen. Han, 20 urte igaro eta gero, Etiopiako Wukro herrira.
5. Wukron zer aurkitu zenuen?
  - Hango jendea pobretasun gorrian bizi zela.
6. Lurralde horretan IHESA oso zabaldua dago. Nazioartea ez da bere konpromisoak betetzen ari. Zer iritzi diozu jarrera horri?
  - O.N.U.ko agintariek denok berdinak garela esaten dute, baina gero laguntzeko gogorik ez dute.
7. Hango herritarrek nola bizi dute heriotza?
  - Fededunak direnez, normaltasunez bizi dute. Egunero gosea, gaixotasunak, etxerik gabe..., baina ez daude haserretuta, ez dute dirurik eskatzen. Bizitza pozez ikusten dute.
8. Zenbat eta gehiago eman, orduan eta beteago sentitzen al zara?
  - Ez, behar handia dagoelako eta beti gehiago egin daitekeela pentsatzen dut.
9. Elizak laguntzen al dizue?
  - Ez, otoitzean bai, baina ez digute dirurik bidaltzen
10. Zein izango lirateke Wukro herrian egiten duzuen lanaren helbururik nagusienak?
  - Jendeari laguntzea.

11. Nola da posible urtero hainbeste haur gosez hiltzea?
  - Daukagun diruarekin ez delako ailegaten behar guztiak betetzeko.
12. Zerk bultzatzen zaitu han jarraitzea?
  - Hango umeez bultzatzen naute han jarraitzea.
13. Zuek Etiopian sortu eta lantzen dituzuen proiektuak azal itzazu.
  - Eskola dugu eta 400 neska-mutil daude; "jangela solidarioa", hara otorduak egitera ume gehienak joaten dira. Gezurra dirudi, baina bakoitzaren kostua 40 zentimokoa besterik ez da; haien osasuna ere zaintzen dugu; zuhaitzak landatzen ditugu, gaur egun 12. 000 inguru daude; urtegiak eraikitzen ditugu lurak ureztatzeko...
- 14 Gipuzkoako Foru Aldundiak urrezko domina emango dizu abenduaren 23an. Zoriontsu sentitzen al zara?
  - Ez naiz zoriontsu sentitzen. Guk behar duguna dirua da hango herritarrei laguntzeko.

**Eskerrak eman nahiko genizkioke  
Angel Olarani guri eskainitako  
denboragatik eta zorte ona  
opa diogu bere lanean.**



Egileak: Elizatxoko 6. maila